

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A



Ezkerretik eskuinera, *Galdácano* (1998) lana, bertan irekitako lehen dinamita fabrikaren omenez Clara Cargutiak margotua; UEEko afixa, Elias Salaberriak 1928an egina; eta Alfred Nobel, lehen dinamita fabrika hura instalatu zuena.

Zuazo lehertu zenekoa

OROZKO, BIZKAIA, 1872. Dinamita deskubritu eta hamar urtera, Alfred Nobelek Espainiako Estatuak lehen dinamita fabrika ezarri zuen Santa Marina mendian. Zenbait enpresari frantziar eta belgikarren laguntzaz, eta 250.000 liberako kapitalarekin zabaltu zuen La Dinamita moduan ezagun egin zen fabrika. Modu horretan, Unión Española de Explosivos (UEE), mundu osoko sektoreko hirugarren enpresaren oinarriak ipini zituen.

Enpresa sortu eta gutxira, egoitza Galdakaora aldatu zuten, instalazioak eta ekoizpena handitzeko. Enpresak lehergaiak ekoizteko eskusibotasuna galdu zuenean, dinamita fabrika berriak sortu ziren. Guztiak batu ondoren sortu zen UEE. Espainian dinamita fabrikatzeko monopolioa lortu eta taldeak gora egin zuen. Ordutik hona, hainbat krisialdi aurre egitea lortu du fusioei esker, eta 1997an 32.000 milioi euro fakturatu zituen.

Galdakaoko fabrika gotorleku baten modukoa da; 700 eraikin ditu, 27 kilometro errepidez lotuak eta, segurtasun arrazoiak direla medio, mendiak ezkutatuta. Fabrika nagusia 1880an eraiki zuten. Berehala, inguruko baserriar andana bertan zen lanean; huraxe izan zen askorentzat erdal munduarekiko lehen harremana.

1912an, eguneko lanagatik 5,25 pezeta –hiru zentimo inguru– jasotzen zituzten UEEko gizon-emakumeek. Emakumeek ere tokia baitzeukaten fabrikaren. Esku finagoak zituztenez, kartutxogileak haiek ziren, hots, dinamita kartutxoetan sartzeaz eta lehergaia bahetzeaz arduratzen ziren. Egun, Galdakaoko kartutxogileak estatu osoan nitroglizerina –goma-2 lehergaiaren oinarria– lantzen duten bakarrak dira. Garai batean, materiala plastilina bailitza moldekatzen zuten eta langile askok zati batzuk etxera eramaten omen zituzten, lehergaiaren usainak adikzioa sortzen omen zuelako. Fabrikaren lehen urteetan, zuzendaritzak ezkonsariaren zati bat ordaintzen zieten 16 eta 25 urte bitarteko emakumezko kartutxogileei.

Hasieran inguruko herritarrek jardun zuten dinamita lantzen, baina enpresa hazi ahala etorkin saldoak iritsi ziren. Fabrikaren inguruan haienztako etxeak egiten hasi ziren eta, denbora gutxian, ezerezetik ia, Zuazo auzoa sortu zen.

Urte asko joan dira ordutik, baina hiztegiari “lehergai” hitza bilatu, eta hara zer esaldi ematen duen adibide gisa: “Galdakaon lehergailu fabrika dago”.

Arrastoak

Feniziarrek Afrika inguratu al zuten?

JOAN DEN UDAN, Philip Beale esploratzaile britainiarra eta hogeiki kideko tripulazioa *Phoenicia* ontzian itsasoratu ziren. Espedizioak ontzi feniziarren kopia fidela eraiki zuen, Alepoko pinuen egurra erabiliz, Herodotok K.a. 400. urtean idatzitakoa egiaztatze asmoz: feniziarrek Afrika itsasoz inguratu zutela duela 2.500 urte.

Historia testuliburu arabera, Bartolome Diaz buru zuen espedizio portugaldarra izan zen kontinente beltza inguratzen lehena, baina Bealek aurrekariak egon zirela frogatu nahi du.

Itsaso Gorriko kostaldetik irten ziren eta 24.000 kilometro egin beharko dituzte Londresera iristeko. Ondo bidean, datorren urteko uztailean iritsiko dira Tamesis ibaiaren estuariariora eta, ondoren, ziur aski, Ontzia British Museum-en erakutsiko dute.



Phoenicia ontzia Afrika inguratzeko espedizioa egiten ari da.